



DONOSTIAKO UDALAREN ETA DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEKO HITZARMENA. AZKEN HORREK ERAKUNDE LAGUNTZAILE GISA JARDUTEKO, EUSKO JAURLARITZAREN INBERTSIO ESTRATEGIKOEN ERAKUNDE ARTEKO PLANEAN (IEEP 22-24) KOKATUTAKO ALTZAKO HIRI BIRGAITZE INTEGRALEKO JARDUKETEN PROGRAMAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK KUDEATZEKO.

Donostia, 2023koarena

BILDURIK

Batetik, Eneko Goia Laso jauna (NAN zk.: 35775793Y), Donostiako Udaleko alkate-udalburua, eta, bestetik, Rafael Farias Blanc jauna (NAN zk.: 34093651S), Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoko zuzendari kudeatzailea den aldetik.

ESKU HARTZEN DUTE

Eneko Goia Laso jaunak, Donostiako Udaleko alkate-udalburu gisa.

Rafael Farias Blanc jaunak, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren izenean eta haren ordezkari gisa (IFZ Q 2000537G), zuzendari kudeatzaile del aldetik, erakunde horretako Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 22an hartutako Erabakiaren bidez egindako izendapenari jarraiki.

ADIERAZTEN DUTE

Lehenik.- Donostiako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak egindako deialdian parte hartzea eskatu zuen. Deialdi hori 2022-2024ko Inbertsio Estrategikoen hiri berroneratze integraleko eta enplegu inklusiboko programaren esparruan (IEEP 22-24) toki erakundeek egindako inbertsio jarduketak finantzatzeari lotuta dago.

Parte-hartze prozesu horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak —Gobernu Kontseiluak 2002ko abenduaren 27an hartutako erabakiaren bidez— Donostiako Udalarik gehienez 9.231.073,15 euroko dirulaguntza zuzena ematea onartu zuen, Donostiako Altza auzoan hainbat birgaitze jarduketa egikaritu ahal izateko.

Garatzeko aurreikusitako jarduketetako batzuk auzoan hainbat obra eta proiektu egikaritzearekin lotuta daude, eta horien kudeaketa zuzenean Udaleko hainbat sailen esku geratzen da. Hala eta guztiz ere, dirulaguntza horren beste zati garrantzitsu bat jabeen erkidegoek auzoan eraikinak osorik birgaitzeko jarduketak ahalbidetzeko eta sustatzeko da, dirulaguntza hori arautzen duten oinarrietan horretarako adierazten diren baldintzen arabera.

Bigarren.- Hitzarmen honi dagokionez, eraikinen birgaitze integraleko jarduketa horiek sustatzearekin lotutako jarduketak honela zehazten dira:

- 1. jarduketa: "eraikinen birgaitze sakona". Gaur egun, EAEko administrazioak 5.038.073,15 euroko dirulaguntza bideratzen du horretara.

Dirulaguntza hori osatzeko, Udalak beste 1.461.926,85 euroko ekarpena egingo du, Udalaren aurrekontuaren kontura.

Hirugarren.- Entidad Pública Empresarial de Vivienda/Donostiako Etxegintza 2004ko martxoaren 30ean eratu zen eta udalaren % 100eko kapitaleko erakunde instrumental bihurtu, Toki Araubidearen



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Oinarriak arautzen dituen 2ko 7/85 Legearen 86.1 artikuluan xedatutakoaren babesean. Era berean, Donostiako Udalen bitarteko propioa pertsonifikatutzat hartzen da.

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa du, bere Estatutuan 2. artikulua arabera.

Haren helburu barruan honako hau dago —bertako Estatutuetako 4. artikulua arabera—: *"Donostiako Udalak Altza inguruan, Molinaoko ibarrean eta Loiola Martuteneko ibarrean egin beharreko hirigintza eragiketak kudeatzea eta egikaritzea; eta, oro har, Udalak edo haren mendeko erakunde eta entitateek agintzen dizkioten plan, programa eta ekintza guztiak kudeatzea eta egikaritzea, beren hirigintza politika garatzeko; eta Udalarekin eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin batera kudeatzea, jardutea eta lankidetzan aritzea, Udalak agintzen dizkion hirigintza eta lurzoruari lotutako gaietan."*

Erakunde horrek, beste ahalmen batzuen artean —bere Estatutuetako 5. artikulua arabera— honako hau du: *"ondare eraikiaren birgaitzea bultzatzea. Zehazki, birgaitze integratuko eremu gisa izendatutako eremuak hiri mailan birgaitzeko edo berritzeko jarduerak, eta haien hirigintza egoeraren ondorioz edo gizarte eta ekonomia egoeraren ondorioz hala behar duten eta Udalak hala esleitzen dien beste eremu, zona, sektore edo auzo batzuk hiri mailan birgaitzeko edo berritzeko jarduerak, betiere Udalak hiriko hirigintza ondarea eta ondare eraikia birgaitzeko, berritzeko edo balioz hornitzeko esleitzen dituen beste proiektu berezi batzuk kudeatzearen kalterik gabe..."* Jarduera horiek egiteko, besteak beste, eginkizun hauek ditu: *"erakunde publikoen baliabideak eta esku-hartzeak koordinatzea eta bideratzea, jarduketa pribatuak kontrolatzea, sustatzea, kudeatzea, aholkatzea, informatzea eta koordinatzea, edo bere helburuak betetzeko agintzen zaizkion beste zerbitzu edo jarduera batzuk ematea eta abar."*

Laugarren.- Donostiako Udalak ez du behar besteko baliabide pertsonal eta materialik hitzarmen honen bigarren puntuan adierazitako jarduketa zehatza behar bezala garatzeko; beraz, egokitzen jo da erakunde laguntzaile bat izendatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Artikulu horren 2. paragrafoak xedatzen duenez, osorik edo nagusiki administrazio publikoen partaidetza duten erakundeak hartu ahal izango dira erakunde laguntzailetzat.

Bosgarren.- Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak esperientzia zabaleko bitartekoak ditu higiezin birgaitzeari lotutako dirulaguntzen eta laguntzen kudeaketan, baita prozesu horietan auzo erkidegoen kudeaketa, laguntza eta aholkularitzari dagokionez ere. Horrek, sozietatearen helburutik ondorioztatzen den espezializazio mailarekin batera, erakunde laguntzaile gisa jarduteko erakunde egokia bihurtzen du, "eraikinen birgaitze sakona" izeneko 1. jarduketari dagokionez. Jarduketa hori 2022-2024ko Inbertsio Estrategikoen hiri berroneratze integraleko eta enplegu inklusiboko programaren esparruan garatzeko aurreikusita dago (IEEP 22-24). Horretarako dirulaguntza Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko Erabakiaren bidez eman zaio.

Hortaz, Donostiako Udala interesatuta dagoenez jarduketa zehatz hori kudeatzeko erakunde laguntzaile gisa hitzarmen bat sinatzeko, eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa haren erakunde instrumentala denez, hitzarmen hau formalizatzen da klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea eta araubide juridikoa



Hitzarmen honen xedea da Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren baldintzak eta betebeharrak finkatzea, Altza auzoan egin asmo den 1. jarduketa — erakleen birgaitze sakona — izenekoa — izapidetzeko erakunde laguntzaile gisa jardun dezan. Programa hori 2022-2024ko Inbertsio Estrategikoen hiri berroneratze integraleko eta enplegu inklusiboko programari (IEEP 22-24) lotuta dago. Horretarako dirulaguntza Eusko Jaurlaritzak Donostiako Udalari eman dio.

Hitzarmen honen xede den jarduketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Donostiako Udalak finantzatzen dute, eta haren kudeaketan honako araudi hau hartuko da kontuan — dirulaguntzen eta hitzarmenen arloan oro har aplikatu beharreko araudiari kalterik egin gabe —:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko Erabakia, Donostiako Udalari, gehienez, 9.231.073,15 euroko dirulaguntza zuzena ematen diona, Donostiako Altza auzoan hiri berroneratzeko jarduketa jakin batzuk egikaritzeko.

- Udalak onartutako dirulaguntza hori emateko deialdia eta oinarri arautzaileak.

Bigarrena.- Erakunde laguntzailearen jarduketak eta baliabide ekonomikoak:

Etengabe aipatzen den Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baldintzen arabera, gaur egun jarduera horretarako esleitu den zenbatekoa 5.038.073,15 eurokoa da.

Zenbateko hori 1.461.926,85 euroekin osatzen du Donostiako Udalak; beraz, kudeatu beharreko laguntzen zenbateko osoa 6.500.000 eurokoa da.

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak, jarduketa zehatz horri dagokionez, bere kabuz edo horretarako kontratatutako bitartekoen laguntzarekin, honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Eman daitezkeen laguntzei buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea laguntzen eskatzaile izan daitezkeenei eta jabekideen erkidegoei.

- Jarduketan diruz lagundu daitezkeen birgaitze integraleko proiektuetan parte hartu nahi duten erkidegoentzako eta bizilagunentzako laguntzen kudeaketa koordinatzea eta erraztea.

- Laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezten laguntzea herritarrei.

- Dagozkion eskabideak behar bezala betetzen direla eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dela egiaztatzea.

- Herritarrek aurkeztutako laguntza eskabideen instrukzio organoen eginkizunak betetzea. Zehazki, eginkizun hauetaz arduratuko da:

- Laguntzak eskatzeko administrazio espedientea bultzatzeaz.

- Erregistroan aurkeztutako eskabidea aztertzeaz, eta eskatzaileek baldintza subjektiboak eta deialdiaren oinarrietan ezarritako jardueren helburuak betetzen dituztela egiaztatzeaz.

- Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak sinatzeko, eskatutako laguntzak ematearen aldeko edo kontrako ebazpen proposamenak justifikatuta egiteaz.

- Oinarri arautzaileen arabera jarduera egitearen justifikazioa biltzeaz.

- Itzulketa prozeduren ebazpen proposamenak egiteaz, hala badagokio, ondoren Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak sinatzeko.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

- Dirulaguntzak emateko eta justifikatzeko prozesuaren berri emateaz, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

- EAEko Administrazioaren Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 27an onartu zituen oinarri arautzaileetan Udalarentzat ezarritako eskakizunak eta baldintzak betetzeko egin beharreko beste edozein jarduketa —eraikinen birgaitze sakonerako 1. jarduketari lotutakoak—; era berean, partikularrei eta jabekideen erkidegoei zuzendutako laguntza eta dirulaguntza horiek emateko Donostiako Udalak onartzen dituen oinarri arautzaileetatik eratorritako jarduketak.

Eskatzaileentzako laguntzen kudeaketari dagokionez, Donostiako Udalak zuzenean egingo ditu. Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, erakunde laguntzaileak burututako jarduerak ez du konpentsazio ekonomikorik izango.

Halaber, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa % 100ean udal erakundea denez, ez zaio banku abalik edo bermerik eskatuko erakunde laguntzaileari.

Azkenik, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak Udalak laguntzen kudeaketari buruz egin ditzakeen egiaztapen jarduketak onartu beharko ditu, baita kontrol organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen eta kontrol jarduketa ere, eskatzen zaion informazio guztia emanez.

Hirugarrena.- Udalaren jarduketak

Donostiako Udalak "eraikinen birgaitzen sakona" izeneko 1. jarduketaren barruko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartuko ditu, eta espediente honen xede diren laguntzak emateari lotutako ebazpenak emango ditu.

- Udalak dirulaguntzen deialdiaren eta oinarri arautzaileen berri emango du Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Laugarrena.- Informazioa

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak egindako kudeaketaren kontuak emango dizkio Donostiako Udalarai, honek eskatzen duenean, eta, nolana ere, aurrekontu ekitaldia amaitzean.

Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen honetan aurreikusitakoa behar bezala egikaritzen dela eta haren jarraipena egiten dela bermatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori bi pertsonak osatuko dute; horietako bat Donostiako Udaleko Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkaria izango da —Batzordeko lehendakaria izango da—, eta, bestea, Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoko zuzendari kudeatzailea.

Horiez gain, alde bakoitzeko beste ordezkari batzuek ere parte hartu ahal izango dute Jarraipen Batzordean, teknikari edo aditu gisa, haiek proposatuz gero. Pertsona horiek hitza izango dute, baina botorik ez.

Batzordearen funtzionamenduaren eta erabakiak hartzearen araubidea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. atalean ezarritakoari egokituko zaio.

Jarraipen Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira:

- Laguntzak ematerakoan eta justifikatzerakoan kudeaketa egokia izateko hartu behar diren ekintzak erabakitzea.

- Aldeek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioz kalte-ordaina zehazteko irizpideak ezartzea, inguruabarrak kontuan hartuta.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak erabakitzea.

Nolanahi ere, Jarraipen Batzorde honek ezin izango du esku hartu dirulaguntzak ematen dituen organoaren berezko eginkizunetan.

Seigarrena.- Iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta hasiera batean 3 urteko iraupena izango du. Aurrekoa gorabehera, indarraldia amaitu ondoren proiektua amaitu ez bada, hitzarmena automatikoki luzatuko da erabat amaitu arte, baina inola ere ezingo da indarraldia 2026ko abenduaren 31tik aurrera luzatu.

Zazpigarrena.- Aldatzea eta iraungitzea

Hitzarmen honen edukia aldatzeko, sinatzaileen aho bateko adostasuna beharko da, eta eranskin bidez egingo da, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Hitzarmena iraungi egingo da hitzarmenaren xede diren jarduketak betetzen direnean edo, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan arabera, hitzarmena suntsiarazteko kausaren bat dagoenean.

Gainera, suntsiarazteko kausak izango dira:

- Hura gauzatzea ezinezkoa denean.
- Aldeetako baten erabaki arrazoitua ematen duenean. Erabaki hori idatziz jakinarazi beharko dio besteari, aurreikusitako amaiera eguna baino gutxienez hamar egun lehenago.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan erakunde laguntzaile izateko eskatzen diren baldintzetako edozein ez betetzea.

Betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez badira, eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen arabera, Jarraipen Batzordean zehaztuko dira alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez badira aplikatu beharreko ondorioak eta, hala badagokio, ez-betetzearen ondoriozko kalte-ordaina zehazteko irizpideak; hala, inguruabarrak kontuan hartuta, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan araututako kasuetan, bidezko itzulketak egin ahal izango dira.

Hitzarmena aldeztu aurretik iraungitzeak edo suntsiarazteak ez du eraginik izango abian diren jardueretan, eta erakunde laguntzaileak hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak bete beharko ditu, salaketa egin aurretik aurkeztutako eskaerei dagokienez.

Zortzigarrena.- Datu pertsonalen babesa

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoak, "Tratamenduaren arduraduna" den aldetik, Donostiako Udalaren kontura, laguntza hauen kudeaketari buruzko datu pertsonalak tratatu ahal izango ditu, bi aldeek sinatu beharko duten eta hitzarmen honi erantsita (**1. eranskina**) datorren tratamenduaren arduradunaren kontratuaren baldintzen arabera.

Bederatzigarrena.- Izaera juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna sor litezkeen eta Jarraipen Batzordeak ebatzi ez dituen auziak epaitzeko.

Eta hitzarmen honen klausuletan jasotako erabaki guzti-guztiekin ados daudela adierazteko, bertaratutakoek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goian adierazitako tokian eta datan.

Donostiako Udalaren aldetik

Sin.: Eneko Goia Laso
Donostiako Udaleko alkate-udalburua

Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoaren aldetik

Sin.: Rafael Farias Blanc
Donostiako Etxegintzako zuzendari kudeatzailea.



I. ERANSKINA
TRATAMENDU ARDURADUN KONTRATUA

I. Eranskina

**Informazioaren Segurtasuna. Datuen
tratamendurako enkargua.**

Anexo 1

**Seguridad de la información
Encargo de tratamiento de datos**

I. Datu pertsonalen babesa

1.- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrekin bat (2016/679 EU), Donostiako Etxegintza izango da tratamenduaren ERAGILEA, eta, hala den aldetik, kontratua gauzatzean eskuratzen dituen datu pertsonalak tratatu beharko ditu. DONOSTIAKO UDALA da datu horien tratamenduaren ARDURADUNA, unean-unean indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat. Betebehar hori indarrean egongo da zerbitzu kontratua hasten denetik amaitzen den egunera arte.

2.- Donostiako Etxegintzak, erakunde laguntzaile gisa, Donostiako Udalarekin sinatu duen hitzarmenaren lehenengo eta bigarren klausuletan adierazitako helburuak betetzeko baino ez ditu erabiliko datu pertsonalak, Jaurilaritzaren Kontseiluak 2022ko abenduaren 27an EAEko Administrazioak hartutako Erabakian aipatzen den eraikinen birgaitze sakona izeneko 1. jarduketa kudeatzeko. Nolanahi ere, DONOSTIAKO UDALAK emandako argibideekin eta/edo jarraibideekin bat etorritik egingo da, eta, gainera, gehiago zehaztu ahal izango dira, tratamenduaren ezaugarrien arabera.

3.- ARDURADUNAK honako jarduera hauek egingo ditu datu pertsonalak tratatzeko:

- ☒ **Bilketa** / Recogida
- ☐ **Erregistroa** / Registro
- ☒ **Antolakuntza** / Organización
- ☒ **Egituraketa** / Estructuración
- ☒ **Aldaketak** / Modificación
- ☐ **Kontserbazioa-Biltegiatzea** / Conservación – Almacenamiento
- ☐ **Ateratzea** / Extracción
- ☒ **Kontsulta** / Consulta

1.- Conforme al Reglamento General de Protección de Datos (UE 2016/679), Donostiako Etxegintza, ostentará la condición de ENCARGADO del tratamiento y, como tal, quedará obligada a tratar los datos de carácter personal a los que debiera acceder durante su ejecución, respecto de los que el AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN ostenta la condición de RESPONSABLE del tratamiento, de acuerdo con la normativa de protección de datos de carácter personal vigente en cada momento. Dicha obligación estará vigente desde el día del inicio del contrato de servicios hasta el día de su finalización.

2.- El tratamiento de datos personales por parte de Donostiako Etxegintza lo será única y exclusivamente para el cumplimiento de los fines indicados en las cláusulas primera y segunda del convenio que dicha Entidad, como entidad colaboradora, ha suscrito con el ayuntamiento de San Sebastián en orden a la gestión de la actuación n.º 1 denominada "rehabilitación profunda de edificios" a que se refiere el Acuerdo del Consejo de Gobierno adoptado con fecha 27 de diciembre de 2022 por parte de la administración de la CAPV, y en todo caso de conformidad con las indicaciones y/o instrucciones dadas por el AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN, pudiendo, además, ser éstas objeto de mayor especificación en función de las características del tratamiento.

3.- El tratamiento de datos personales por parte del ENCARGADO, comprenderá las siguientes actividades:

- ☒ **Hedapena** / Difusión
- ☐ **Digitalizazioa** / Digitalización
- ☒ **Erabilera** / Utilización
- ☒ **Erkaketa** / Cotejo
- ☐ **Mugaketa** / Limitación
- ☐ **Ezabapena** / Supresión
- ☐ **Suntsiketa** / Destrucción
- ☒ **Beste batzuk (Interkonexioa,...)** / Otros (Interconexión,...)



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

4.- Hauek dira kontratuko zereginak gauzatu ahal izateko datu pertsonalen tratamenduaren ARDURADUNAK datu pertsonalen tratamenduaren ERAGILEAREN esku jarri dituen datuak, eta azken horiek tratatu dituenak:

4.- Los datos personales tratados por el ENCARGADO, que pone a su disposición el RESPONSABLE del tratamiento, para poder llevar a cabo las tareas objeto del presente contratos son:

Identifikazio datuak / Datos identificativos

- ☒ **Izen-abizenak** / Nombre y apellidos
- ☒ **Identifikazio zenbakia (NAN, IFZ, egoiliar zenbakia)** / N° de identificación (DNI/NIF/N° Residente)
- ☒ **Sinadura elektronikoa edo errubrika** / Firma electrónica o rúbrica
- ☒ **Telefonoa**
- ☒ **Posta helbidea** / Dirección Postal
- ☒ **Posta elektronikoa** / Correo Electrónico
- ☐ **Osasun txartela** / Tarjeta sanitaria
- ☐ **Gizarte Segurantzako edo mutuako zenbakia** / N° SS /Mutua
- ☒ **Irudia-ahotsa** / Imagen - Voz
- ☒ **Beste batzuk** / Otros

Kategoria berezietako datuak / Datos de categorías especiales

- ☐ **Osasuna** / Salud
- ☐ **Sindikatu afiliazioa** / Afiliación sindical
- ☐ **Datu biometrikoak (aztarnak eta marka fisikoak)** / Dato biométrico (huellas y marcas físicas)
- ☐ **Bizitza sexuala-sexu orientazioa** / Vida sexual-Orientación sexual
- ☐ **Jatorrizko arraza edo etnia** / Origen racial o etnia
- ☐ **Iritzi politikoak** / Opiniones políticas
- ☐ **Datu genetikoak** / Datos genéticos
- ☐ **Uste erlijioso edo filosofikoak** / Convicciones religiosas o filosóficas
- ☐ **Beste batzuk** / Otros

Arau hausteen datuak / Datos infracciones

- ☐ **Arau-hauste penalak** / Infracciones penales
- ☒ **Arau-hauste administratiboak** / Infracciones administrativas

Beste datu batzuk / Otros datos

- ☒ **Ezaugarri pertsonal eta sozialak** / Características personales y sociales
- ☐ **Akademikoak eta profesionalak** / Académicos y profesionales
- ☒ **Enplegua eta lanpostuak** / Empleo y puestos de trabajo
- ☒ **Errendimendu profesionala** / Rendimiento profesional
- ☒ **Ondare kaudimena eta kreditua** / Solvencia patrimonial y crédito
- ☒ **Ekonomiko-finantzarioak** / Económico-financieros

☒



- ☐ **Transakzioak / Transacciones**
- ☐ **IPa, kokagunea edo mugimenduak / IP, ubicación o movimientos**
- ☐ **Soslaiaren ebaluazioa (nortasuna eta portaera) / Evaluación de perfiles (personalidad y comportamiento)**
- ☐ **Pertsona horren ezaugarri fisikoekin, fisiologikoekin, genetikoekin, psikikoekin, ekonomikoekin, kulturekin edo sozialekin lotutako beste datu batzuk / Otros datos relacionados con la identidad física, fisiológica, genética, psíquica, económica, cultural o social de dicha persona.**

5.- ERAGILEAK interesdunen kategoria hauetan oinarrituz tratatuko ditu datu pertsonalak:

5.- Las categorías de interesados sobre las que se tratan datos personales por parte del ENCARGADO, serán:

6.- Tratamenduaren ARDURADUNAK kontratu hau gauzatzeko datu pertsonalak zuzenean jasotzen baditu interesdunengandik, ARDURADUNAREN jarraibideei jarraituz jakinarazi beharko die. Nolanahi ere, tratamenduaren ARDURADUNAK Donostiako Udarekin sinatu duen erakunde laguntzailearen hitzarmena behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren gutxienezko datu pertsonalak soilik eskatu ahal izango dizkie interesdunei.

6.- En el supuesto de que el ENCARGADO del tratamiento recabe directamente de los interesados datos personales para la ejecución del presente contrato, deberá informarles siguiendo las instrucciones del RESPONSABLE. En todo caso, el ENCARGADO del tratamiento sólo podrá solicitar de los interesados los datos personales mínimos e imprescindibles para la correcta ejecución del convenio de entidad colaboradora que ha suscrito con el Ayuntamiento de San Sebastián.

7.- Modu automatizatuan edo ez-automatizatuan trata ditzake tratatu beharreko datu pertsonalak. Baliabide hauek erabil ditzake tratamendurako:

7.- Los datos personales objeto del tratamiento, pueden ser tratados en modo automatizado y no automatizado. Los medios empleados para el tratamiento serán:

- ☐ **Fisikoak**
- ☐ **Informatikoak**
- ☒ **Mistoak**

8.- Donostiako Etxegintzak ezingo dio inori komunikatu, zabaldu, laga edo jakinarazi kontratua gauzatzean eskuratzen duen datu pertsonalik.

8.- Donostiako Etxegintza quedará obligada a no comunicar, difundir, ceder o transmitir a terceros los datos de carácter personal a los que accediera durante la ejecución del contrato.

Donostiako Etxegintzak zerbitzuen garapenean hirugarren batek parte hartu behar badu eta datu pertsonalak eskuratu behar baditu, DONOSTIAKO UDALAK azpikontratazioa baimendu beharko du, aldez aurretik eta idatziz. Horretarako, azpikontratatu nahi den/diren zerbitzua/k adierazi beharko dira, eta argi eta garbi identifikatu beharko dira enpresa azpikontratista eta harremanetarako datuak. Azpikontratutako enpresak tratamenduaren arduraduna izango da, eta baldintza-agiri honetan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Horrez gain, Donostiako Etxegintzaren eta azpikontratatuaren artean sinatu beharko dira tratamenduaren enkarguak ezarritako kontratu-betebeharrak. Azpizuzendariak bere betebeharrak betetzen ez baditu, Donostiako Etxegintza tratamenduaren ARDURADUNAREN aurrean erantzule izango da, azpizuzendunaren betebeharrak betetzeari dagokionez.

En el caso que Donostiako Etxegintza precise la participación de un tercero en el desarrollo de el/los servicio/s, que requiera el acceso a datos personales, el AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN deberá autorizar la subcontratación, previamente y por escrito, para lo cual deberán indicarse el/los servicio/s que se pretende subcontratar e identificarse de forma clara e inequívoca la empresa subcontratista y sus datos de contacto. La empresa subcontratada adquirirá la condición de Subencargada del Tratamiento, quedando obligada a cumplir las obligaciones establecidas en este pliego, y debiendo suscribirse entre Donostiako Etxegintza y la subcontratada las correspondientes obligaciones contractuales impuestas, en su caso, por el Encargo del Tratamiento. En el caso de incumplimiento de sus obligaciones por parte de la subencargada, Donostiako Etxegintza será responsable ante el



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

RESPONSABLE del Tratamiento por lo que respecta al cumplimiento de las obligaciones del Subencargado.

9. Donostiako Etxegintzak isilpean gorde beharko ditu eskura dituen, izan dituen edo izan ditzakeen datu pertsonal guztiak. Era berean, enpresatik kanpoko edozein pertsonak datu pertsonaletara sartzea zaindu eta eragotzi beharko du, baita DONOSTIAKO UDALERAKO zerbitzuak ematen amaitu ondoren ere.

Ilido beretik, Donostiako Etxegintzak bermatu egin beharko du datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen dutela idatziz, DBEOren 5.1.f) artikulua ezartzen duen bezala. Horretarako, Donostiako Etxegintzak datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalen babesari buruzko beharrezko prestakuntza bermatzeko betebeharra du.

10. Tratamenduaren ERAGILEAK ezingo ditu bidali datuak Europar Batasunaren esparrutik kanpoko herrialdeetara. Datuak DBEOaren aplikazio esparrutik kanpoko herrialdeetan biltegiratzeari ere eragiten dio debeku horrek. Tratamenduaren ERAGILEAK beste herrialderen batera edo nazioarteko erakunderen batera bidali behar izanez gero datu pertsonalak, aplikagarri zaion Europar Batasuneko edo estatu kideren bateko zuzenbidearen arabera, salbu eta legezko debekuren bat edo agintari eskudunak jakinarazitako debekuren bat dagoenean, tratamenduaren ARDURADUNAREN idatzizko baimena jaso beharko du lehenago, eta beharrezko bermeei buruzko informazioa eman beharko dio horretarako. Nazioarteko bidalketa kontrol agintaritzaren berariazko baimenaren mende baldin badago, tratamenduaren ERAGILEAK ez du bidalketa egingo tratamenduaren ARDURADUNAK baimen hori baduela jakinarazi artean.

11.- Donostiako Etxegintzak segurtasun neurri teknikoak eta antolaketakoak ezarri eta hartu behar ditu, arriskuaren arabera behar den segurtasuna bermatzeko. Segurtasun maila egokia ote den ebaluatzeko, datuen tratamenduak eragindako arriskuak hartuko dira kontuan; zehazki, beste era batera bidalitako, mantendutako edo tratatutako datu pertsonalak nahi gabe edo legez kontra suntsitzeak, galtzeak edo aldatzeak eragindako arriskuak nahiz datu horiek baimenik gabe jakinarazteak edo datu horietara baimenik gabe sartzeak eragindako arriskuak. Neurri tekniko eta antolaketako hauek hartu beharko ditu:

9. Donostiako Etxegintza quedar  obligada a guardar secreto de todos los datos de car cter personal a los que tenga, haya tenido o pueda tener acceso o constancia. Igualmente, deber  custodiar e impedir el acceso a los datos de car cter personal a cualquier persona ajena a la empresa, incluso despu s de que finalice la prestaci n de servicios para el AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTI N.

En este mismo sentido, Donostiako Etxegintza quedar  obligada a garantizar que las personas autorizadas para tratar datos personales se comprometan por escrito a respetar la confidencialidad, como establece el art culo 5.1.f) del RGPD. A tal efecto, Donostiako Etxegintza se obliga a garantizar la formaci n necesaria en materia de protecci n de datos personales de las personas autorizadas para tratar datos personales.

10. El ENCARGADO del tratamiento no podr  transferir datos a terceros pa ses ajenos al marco del Espacio Econ mico Europeo, incluy ndose en esta prohibici n el almacenamiento de los datos en terceros pa ses ajenos al  mbito de aplicaci n del RGPD.

No obstante, si el ENCARGADO del tratamiento debiera transferir datos personales a un tercer pa s o a una organizaci n internacional, en virtud del Derecho de la Uni n o de los Estados miembros que le sea aplicable, deber  recabar, salvo prohibici n legal o comunicada por la autoridad competente, la autorizaci n previa y por escrito del RESPONSABLE del tratamiento, facilitando la informaci n necesaria en relaci n con las garant as adecuadas. En caso de que la transferencia internacional se encuentre sometida a autorizaci n expresa de la autoridad de control, el ENCARGADO del tratamiento se abstendr  de efectuar la misma hasta que el RESPONSABLE del tratamiento comunique la obtenci n de dicha autorizaci n.

11.- Donostiako Etxegintza deber  implantar y adoptar las medidas de seguridad de  ndole t cnica y organizativas adecuadas para garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo. Al evaluar la adecuaci n del nivel de seguridad se tendr n en cuenta los riesgos que presente el tratamiento de datos, en particular como consecuencia de la destrucci n, p rdida, o alteraci n accidental o  lcita de los datos personales transmitidos, conservados o tratados de otra forma, o la comunicaci n o acceso no autorizado a dichos datos. En todo caso, deber  adoptar las siguientes medidas t cnicas y organizativas:



A. Jardueren erregistroa: Tratamenduaren ERAGILEAK tratamenduaren ARDURADUNAREN esku jarri beharko du, hala eskatzen zaionean, DBEOko 30. artikuluko Tratamendu Jardueren Erregistroa. Erregistro hori idatzizkoa izango da, formatu elektronikoa eduki ahal izango du, eta honako hauek jasoko ditu:

- ERAGILEAREN izena eta harremanetarako datuak, bai eta eragilearen gaineko arduradun bakoitzaren ere, eta, halaber, halakorik badago, datuak babesteko ordezkariarenak.
- Tratamenduaren helburua.
- ARDURADUN bakoitzaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- Halakorik badago, beste herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera egindako datu pertsonalen transferentziak, beste herrialde edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa barne, eta, 49.1. artikuluko bigarren paragrafoko transferentzien kasuan, berme egokiei buruzko dokumentazioa.
- Ahal bada, 32.1 artikuluan aipatutako segurtasunari buruzko neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra.

B. Egin beharreko eginbideen artean, tratamenduaren ARDURADUNAK Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak, zerga kuotak ordaindu izanaren ziurtagiriak eta langileen Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ziurtagirik eskatu ahal izango dizkio ERAGILEARI, edo datu horiek kontsultatzeko baimena eman diezaiola ARDURADUNARI.

C. Antolaketa neurriei dagokienez, DBEOko 37. artikulua hala eskatzen duenean, tratamenduen ERAGILEAK datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du. Era berean, informazioaren segurtasunerako arduradun batek bideratuko ditu segurtasunari lotuta hautemandako gertaerak, eta tratamenduaren ARDURADUNA jakinaren gainean jarriko du, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz. Datuak babesteko ordezkari bat izendatzeko obligaziorik ez dagoenean, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz, beste langile bat izendatu beharko da, besteak beste, interesdunen erreklamazioak bideratzeko.

12.- Tratamenduaren ERAGILEAK bere obligazio guztiak betetzen dituela frogatzeko beharrezko informazio guztia gorde, eta tratamenduaren ARDURADUNAREN esku jarriko du. Gainera, konpromisoa hartzen du jarduera hauek eginez hari laguntzeko, beste batzuei eragozpenik sortu gabe:

- Datu pertsonalen tratamenduaren arriskuei buruzko azterketa egingo du, eta hala

A. Registro de Actividad: El ENCARGADO del tratamiento deberá poner a disposición del RESPONSABLE del tratamiento cuando así le sea requerido, el Registro de Actividades de Tratamiento previsto en el artículo 30 del RGPD, que deberá tener forma escrita, pudiendo ser en formato electrónico, y que contendrá:

- El nombre y los datos de contacto del ENCARGADO y de cada RESPONSABLE por cuenta del cual actúe el ENCARGADO, y, en su caso, del delegado de protección de datos;
- La finalidad del tratamiento;
- Las categorías de tratamientos efectuados por cuenta de cada responsable;
- En su caso, las transferencias de datos personales a un tercer país u organización internacional, incluida la identificación de dicho tercer país u organización internacional y, en el caso de las transferencias indicadas en el artículo 49, apartado 1, párrafo segundo, la documentación de garantías adecuadas;
- Cuando sea posible, una descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad a que se refiere el artículo 32, apartado 1.

B. En el marco de las medidas de diligencia debida, el RESPONSABLE del tratamiento podrá solicitar al ENCARGADO del tratamiento las cuentas anuales elevadas al Registro Mercantil, así como certificados de hallarse al corriente de pago de las cuotas tributarias y de la seguridad social de los trabajadores, o solicitar la autorización para su consulta.

C. En cuanto a las medidas organizativas, el ENCARGADO del tratamiento deberá designar, cuando sea exigible conforme al artículo 37 RGPD, a un Delegado de Protección de Datos. Asimismo, un responsable de la seguridad de la información canalizará los incidentes de seguridad detectados dando traslado al RESPONSABLE del tratamiento de acuerdo al procedimiento establecido en el presente contrato. En el supuesto de que no exista obligación de designar un Delegado de Protección de Datos, deberá designar, además, a otro trabajador para canalizar, entre otras cuestiones, las reclamaciones de los interesados de acuerdo con el procedimiento establecido en el presente contrato.

12.- El ENCARGADO del tratamiento conservará y pondrá a disposición del RESPONSABLE del tratamiento toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de sus obligaciones. Además, manifiesta su compromiso con el deber de colaboración y, sin perjuicio de otras, con la realización de las siguientes actuaciones:

- Un análisis de riesgos del tratamiento de datos personales y, en su caso, la evaluación de



dagokionean, eraginari buruzko ebaluazioa.

- Azkar erantzuneko datu pertsonalak babesteari buruz interesdunek dituzten eskubideei. Tratamenduaren ERAGILEAK datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatze, kontra egiteko, mugatzeko, aldatzeko eta banako erabakietan oinarritua ez izateko duen eskubideari buruzko eskaeraren bat jasotzen badu interesdun batengandik, ARDURADUNARI jakinarazi beharko dio eskaera jaso eta 24 ordu pasa baino lehen, eskaerari erantzun egokia emateko garrantzitsua izan daitekeen informazioarekin batera.
- Segurtasun arrakalak jakinaraziko ditu, kontratu honetan ezarritako prozedurari jarraituz.
- Tratamenduaren ARDURADUNAREN esku jarriko du kontratu honetan hitzartutako obligazioak betetzen direla frogatzeko informazio guztia, bai eta ARDURADUNAK edo hark izendatutako beste norbaitek auditoretzak egin ahal izateko eta auditoretzak egiten laguntzeko informazioa ere, ikuskaritzak barne.

13.- Tratamenduaren ERAGILEAK ahalik eta eperik laburrenean jakinarazi beharko ditu eskura dituen datu pertsonalei eragiten dieten segurtasun urraketak, gertaeraren dokumentazio eta jakinarazpenerako garrantzitsua den informazio guztia emanaz, okerreko atzerapenik gabe eta gertaera izan denetik 12 ordu igaro baino lehen. Gertaera zuzenean jakinaraziko zaio Donostiako Udaleko segurtasun arduradunari.

Tratamenduaren ERAGILEAK tratamenduaren ARDURADUNARI lagunduko dio, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazteko betebeharra gauzatzeko beharrezko informazio guztia emanaz nahiz hark eskatutako beste edozer emanaz. Tratamenduaren ERAGILEAK honako informazio hau jakinarazi beharko du, gutxienez:

- Datu pertsonalen segurtasunari lotutako gertaeren azalpena, ondorioen balorazioa, larritasuna eta interesdunei eragindako arriskuen azalpena.
- Segurtasuna nola urratu den, zenbat kaltetu izan diren, zein izan diren segurtasun arrakala horren ondorioz erasandako datuen eta erregistroen kategoriak eta formatua (papera edo elektronikoa).
- Segurtasuna urratu dela hauteman bada, tratamenduaren ERAGILEAK zer neurri hartu edo proposatu dituen sortutako kalteak arintzeko edo, hala dagokionean, kaltetuentzat izan daitezkeen arriskuak edo eragin kaltegarriak arintzeko.

impacto.

- La rápida respuesta al ejercicio derechos de los interesados en materia de protección de datos personales. En el supuesto de que el ENCARGADO del tratamiento reciba una petición por parte de un interesado en referencia al ejercicio de sus derechos personales de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación, portabilidad y no ser objeto de decisiones individualizadas, deberá comunicarlo al RESPONSABLE en el plazo de 24 horas desde su recepción, junto con la información que pueda ser relevante para la adecuada respuesta al solicitante.
- La comunicación de las brechas de seguridad, de acuerdo al procedimiento establecido en el presente contrato.
- Poner a disposición del RESPONSABLE del tratamiento toda la información necesaria para demostrar el cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente contrato, así como para permitir y contribuir a la realización de auditorías, incluidas inspecciones, por parte del RESPONSABLE o de un tercero que designe.

13.- El ENCARGADO del tratamiento deberá comunicar en el plazo mínimo imprescindible las violaciones de seguridad que afecten a los datos personales a su cargo, facilitando toda la información relevante para la documentación y comunicación de la/s incidencia/s, sin dilaciones indebidas en el plazo de 12 horas desde que se haya producido el incidente. La comunicación se producirá directamente al Responsable de Seguridad del Responsable del tratamiento.

El ENCARGADO del tratamiento colaborará y asistirá al RESPONSABLE del tratamiento aportando toda la información que sea necesaria para el cumplimiento del deber de comunicación a las Agencia Vasca de Protección de Datos Personales, así como cualquier otra que fuera requerida por la misma. La información a comunicar por parte del ENCARGADO del tratamiento será, como mínimo, la siguiente:

- Descripción del evento o incidente de seguridad de los datos personales, valoración de la afectación, gravedad y riesgo para los interesados.
- Descripción de la naturaleza de la violación de seguridad, número de afectados, categorías de datos, registros afectados y formato (papel o electrónico) que ha sufrido la brecha de seguridad.
- Descripción de las medidas adoptadas o propuestas por el ENCARGADO del tratamiento tras la detección de la violación de seguridad, para paliar los daños producidos o, en su caso, los potenciales riesgos o efectos perjudiciales para los afectados.



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

14.- Tratamenduaren ARDURADUNAK hitzartutakoak betetzen direla egiaztatzeko jarduerak egiteko eskatu ahal izango dio ERAGILEARI, eta, beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak hartzeko, betiere tratamenduaren ARDURADUNAK ezarritako baldintzen arabera.

15.- Donostiako Etxegintzak eman beharreko zerbitzuetarako ez baldin badago datu pertsonaletara sartu beharrik baina beharrezkoa baldin bada euskarri informatizatuak edo datu pertsonalak babesteko araudiaren mendeko informazio pertsonala duten dokumentuak dauden azpiegiturretara sartzeara, enpresa derrigortuta dago eskura edo iristeko moduan dituen datu horien inolako erabilera edo tratamendurik ez egitera. Bera egingo da baldintza hori ez betetzeak izan ditzakeen ondorioen eta arau-hausteen erantzule.

16.- Datuak babesteari buruzko araudia urratzen bada kontratuaren indarraldian, Donostiako Etxegintzak erantzungo die arau-hauste horiei, eta kontratua betetzetik datozen nahiz datuak babesteko araudiak ezarritako betebeharrak eta obligaziotik datozen erantzukizun guztietatik salbuetsiko du DONOSTIAKO UDALA, idatziz.

17.- Tratamenduaren ERAGILEAK kontratu hau indarrean dagoen bitartean gordeko ditu kontratu honi dagozkion datuak.

Behin kontratua amaitutakoan, Donostiako Etxegintzak tratatutako datu pertsonalak itzuli beharko dizkio tratamenduaren ARDURADUNARI, erabilitako formatua edozein dela ere. Hala ere, datu horien kopia bat gorde ahal izango du, behar bezala blokeatuta, kontratu hau gauzatzetik eratorritako balizko erantzukizunei aurre egiteko. Tratamenduaren ARDURADUNAK bidalitako euskarri berean itzuli beharko dira datuak; ondoren, tratatu diren ordenagailutik ezabatu beharko dira, eta paper formatuan dauden dokumentuak modu seguruan suntsitu beharko dira.

14.- El RESPONSABLE del tratamiento podrá exigir el sometimiento del ENCARGADO a la realización de actuaciones de verificación de cumplimiento, y cuando sea necesario, a la adopción de medidas correctoras, conforme en todo caso a los requisitos que establezca el RESPONSABLE del tratamiento.

15.- En el caso de que la ejecución de el/los servicio/s a prestar por Donostiako Etxegintza no implique el tratamiento de datos personales, pero sea necesario el acceso a instalaciones donde se encuentran soportes informatizados y/o documentales que contengan información sometida a la normativa de protección de datos personales, la empresa queda obligada a no hacer ningún uso o tratamiento de aquellos a los que pudiera tener disponibilidad o acceso, siendo responsable de las consecuencias e infracciones que pudieran derivarse de no respetar esta condición.

16.- En el caso de incumplimiento de la normativa de protección de datos vigente en cada momento Donostiako Etxegintza responderá de dichos incumplimientos, eximiendo expresamente al AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN de cualquier responsabilidad dimanante de la ejecución del contrato y de todos los deberes y obligaciones impuestos por la normativa de protección de datos.

17.- El ENCARGADO del tratamiento conservará los datos personales objeto del presente contrato mientras se mantenga la vigencia del mismo.

Una vez concluido el contrato, Donostiako Etxegintza deberá devolver al RESPONSABLE del tratamiento los datos personales tratados, independientemente del formato utilizado. Sin perjuicio de que pueda conservar una copia de los mismos, debidamente bloqueada, para responder de las posibles responsabilidades derivadas de la ejecución del presente contrato.

La devolución deberá realizarse en el mismo soporte en la que le fueron remitidos por el RESPONSABLE del tratamiento, procediendo al borrado de los ordenadores donde fueron tratados y a la destrucción segura de los documentos en formato papel.

Lizitatzaillearen sinadura
Firma de Donostiako Etxegintza